

# BERDIN BERRI!

Azkoitiko aldizkari feminista



## LANDA ETA BASERRI EMAKUMEAK



*Euskal emakume nekazariak*

### ZER DA BERDIN BERRI?

Ongi etorri **Berdin Berrira**, berdintasuna eta indarkeria matxistaren prebentzioa helburu duen aldizkari honetan, hileroko hainbat gaien inguruko informazio interesgarria aurkituko duzu: emakume erreferenteak, gaiari dagokion informazioa, datu interesgarriak eta gaia lantzeko baliabideak, besteak beste.

Feminismotik aldarrikatzen diren hainbat gai ezagutzeko aukera izango duzu, beraz, ikasle, irakasle, guraso... ez galdu aukera eta bilatu ezazu zure herriko hezkidetza programaren web orrialdean [azkoitihezkidetza.wordpress.com](http://azkoitihezkidetza.wordpress.com)

# Urriak 15, Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko Eguna

Gure jendartean industriak badu bere boterea, hain zuzen, askok uste dute industria garapenaren seinalea dela, aitzitik, bagara asko argi dugunok garapen eredu hori ez dela jasangarria eta aldaketa sozioekonomikoak beharrezkoak direla pertsonaren - eta munduaren- ongizaterako. Landa eremuko emakumeak ezinbestekoak dira gure jendartearen aldaketa horretan.

Landa eremuko emakumeak dira munduko jendartearen herena; nekazarien artean, berriz, %43a. Lurra landu, herriak elikatu eta hasiak landatzen dituzte. Aldi berean, familia kideak, seme-alabak eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzte. Hala ere, NBE Emakumeak adierazi duenaren arabera "landa emakumeak pobrezia era bortitzagoan jasaten dute eta gizonak bezain produktibo badira ere, ez dute lurra jabetzan izateko aukera berdina, ezta nekazaritza materialak, merkatuaren sarbidea edo balio ekonomiko handiagoa duten laborantzak lortzeko aukera berdina ere". Antzeko zerbait gertatzen da zerbitzu publikoekin, hezkuntza edo osasun zerbitzuen sarbidearekin besteak beste, baita ura eta gainontzeko azpiegiturekin ere. Hau honela errealitateak erakusten du landa eta baserri emakumeak eremu honetako gizonak edo herri eta hiri eremuan bizi diren emakumeak baino egoera okerragoan bizi direla.



Guzti hau dela eta 2007. urtetik, urriaren 15ean Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzen da. Emakume askok historian isil-isilik egin duten lan garrantzitsua balioan jartzeko, pobreziaren erauztean edo elikagai segurtasunean izan duten garrantzia kontutan hartuz.



*Inoiz pentsatu al duzu zer garrantzitsua den landa eremuko emakumeek egiten duten lana?*



# BAZENEKIEN?...

## Zer den EKO-FEMINISMOA?

Bada Feminismoa eta Ekologismoaren elkar arteko harremana. Ekofeminista izatea **Amalurra** maitatzea, lurraren ekoizpen jasangarriaren eta emakumeen eskubideen alde borrokatzea da, alegia, etekin ekonomikoaren ordezkari bizitzak erdigunean jartzen duen korrontearen alde egitea.



## "FAMILIA LAGUNTZA" baserri eremuan



Gure testuinguruan ohikoa izan da landa eremuan emakumeak egindako lana "familia laguntza" bezala izendua izatea. Alegia, gizon baten titulartasunpean dauden ustiatzietan lan egitea baina eskubide berberak izan gabe. Hala ere, azken urteetan aurrerapausoak eman dira emakumeon autonomia handitu eta baliabide ekonomiko, sozial eta kulturalak eskuratzen. Hau honela, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzietan partekatutako figura berria arautu eta emakumeen baliabide ekonomikoak, lurra eta nekazaritzako ustiatzietan eskuratzeko aukera ekarri du, honekin batera, autonomia pertsonalerako beste urrats bat lortu da.

## Emakumeen "LAN IKUSEZINA" landa eremuan

Estatu mailako datuen arabera, ustiatzietan guztien artean **%9a bakarrik dago emakumeen esku** eta hauen dimentsioa gizonena baino txikiagoa da.

Ustiatzietan lan egiten duen **emakumeen %59ak ez du kotizazio sozialik ordaintzen**, honek eskubide ugari galtzea eragiten du (jubilatze pentsioa, lan bajak...) hauen ekarpenak ikusteaz gain.



# EMAKUMEEN AHOTSA

Atal honetan aurkituko dituzun emakumeak, taldeka nahiz bakarka, egungo ekoizpen eta kontsumo ereduaren aurka altxatu dira. Izan ere, jakin badakite horrelako ereduak mundu mailako beroketa eta baso-soiltzea ekartzen dizkigutela, baita espezien desagertzea, eta beste motatako kalte ekologikoak, garapen iraunkorrerako kaltegarriak ere direla.

## VANDANA SHIVA



Filosofoa eta aktibista ekofeminista da, emakume nekazari, balio indigenen, lurra eta bioaniztasunaren babeslea. Multinazionalen hazien aniztasunean eta aberastasunean suposatzen duten mehatxuaren kontra borroka egiten du. Era berean, emakumeek zaintzan eta elikaduran duten garrantzia aldarrikatzen du.

<https://www.youtube.com/watch?v=EpagGCwfeOA>

1952. India

## "ETXALDEKO EMAKUMEAK" TALDEA

Etxaldeko Emakumeak hainbat soslaietako emakumeen talde irekia da, emakume baserritarrak, landa eremuko emakumeak eta elikadura burujabetzaren proposamenarekin bat egiten duten emakumeak. Agroekofeminista gisa definitzen dute euren burua eta haien helburuak lortzeko bi norabidetan eragitea dute xedea: Feminismoan elikadura burujabetza txertatzea eta, aldi berean, nekazarien mugimenduan feminismoa txertatzea.




## LOLITA CHÁVEZ



Emakumeen eskubideen alde borrokatzen duen Guatemalako aktibista eta lider indigena, naturak eskaintzen dituen baliabideen babesari dagokionez nazioarteko erreferentea.

<https://www.youtube.com/watch?v=yYJvr7vC2bU>

1972, Guatemala



## 1. LAS MUJERES DE LA FRESA

[HTTPS://WWW.PUBLICO.ES/SOCIEDAD/ABUSO-TRABAJADORAS-MIGRANTES-REVISTA-ALEMANA-DENUNCIA-VIOLACIONES-MUJERES-ABORTOS-CAMPOS-FRESA-HUELVA.HTML](https://www.publico.es/sociedad/abuso-trabajadoras-migrantes-revista-alemana-denuncia-violaciones-mujeres-abortos-campos-fresa-huelva.html)

## 2. EMAKUME BASERRITARRAK, ETORKIZUNA EREITEN ( MAITE SANCHEZ)

<https://vimeo.com/140203169>

## 3. PREMIO EXCELENCIA INNOVACION MUJER RURAL

<https://www.youtube.com/watch?v=yJSbnLzGdB8>

## 4. Pikara Magazine Online. MIRAR EL MUNDO DESDE LA HUERTA

<https://www.pikaramagazine.com/2019/04/resituarnos-como-especie-mirar-el-mundo-desde-la-huerta/>

Gurekin harremanetan jarri nahi ezkeru

Azkoitiko hezkidetza programa:  
**azkoitiprebentzioa@gmail.com**

Indarkeria matxistari aurre egiteko arreta zerbitzuak:

24 orduko tel. bidezko arreta zenbakia: 900 840 111 edo 016

Ertzaintza: 943 08 37 80

Gizarte Zerbitzuak: 943 85 7174

Larrialdiak: 112

Udaltzaingoa: 943 85 7171

